

# Jakin

16'gna Arantzazu'n

1964



Bi urte... eta ba-gera berriz ere! Bai, irakurle, bi urte joan dira azkeneko JAKIN-etik ona, eta amaikatxo kontakizunik izan da baztarretan: Konzilioa ta Juan XXIII eta PauloVI eta Kennedy eta, eta... asko! Gure etxealderago berriz, Etxaide ta Orixe ta Altube il zaizkigu. Danak ziran auek JAKIN-en gusto gustokoak; baiña patuaren aizeak eraman ditu kondairaren etxera-ta... Ala ere, gizonak ez dira sekula erabat joaten mundutik. Txiki ta aundi, beti uzten dute beren ondorengoa, perfumeak atzetik beren usai gozoa bezela, eguzkiak beroa bezela. Bizitzak beti eltzen dio zeri ari, ta erne egiten da berriro: gorrotoa naiz maitasuna, berebat pakea ta gerra, edota giza-espirtuaren illunteak eta norabide argitsuak. Ez, gizonak ez dira erabat iltzen, naiz eta besteen buru-biotzetan aazturik gelditu.

Besteak beste, berriz, gure Etxaide ta Orixe ta Altube ere ez dira gure euskalzaleen biotzetan itzaliko. Izan ere,

euskerari eurek emandako indarra ta bizimena ta argia ta izerdia barnean ere oso barnean baldaude, eta euskeraren bizinaiak ezin dezake aaztu bere langille jatorrenetako iru oiek eman dioten bultzadaren sua.

Ain zuzen euskaldun aundi oietxen asmoak erori dira JAKIN-en soroan aziak antzo, eta emen erneko dira berriz ere ta emen elduko, euskalzale jator oien oroigarririk bi-kaiñena bezela: euren euskera-miña, ta euren euskera gau-rreguneratzeko joran bizia, ta euren “euskal-erri baten ar-nasa mamitzeko” alegiñak. Asmo ta elburu onetxek artu gaitu gaurko jakinlariok ere eta auxe eskeifiñ diegu maixu maite biotzeko oiei omenik eta agurrik beroena bezela. Guk ere leengo erri zaarraren arnasez mamitu nai ditugu orain-go biziera ta kultura berriok; leengo ta betiko euskal-kutsu-rik galdu gabe, nortasun-berritu egin nai dugu gure euskal-erri zaarra gaurko munduaren pentsakera, bizimodu ta biz-kortasunez. Alkar artu dezagun danok saiaketa ontan, Orixe aundiarekin esanaz: “ats emaiogun ontan irauñ dezan”.

F. M.